


- DEL AMO CASTRO, I. A. (2017): "El retorno del pueblo", in E. Díaz Cano eta R. L. Barbeito (arg): *XV Premio de Ensayo Breve de la Asociación Castellano-Manchega de Sociología "Fermín Caballero"*, 63-85. Toledo: ACMS.
- FRAZER, N. (2017): "The End of Progressive Neoliberalism". In: *Dissent*, January 2.
- JAMESON, F. (1998): *Teoría de la postmodernidad*. Madrid: Trotta.
- LACLAU, E. (2005). *La Razón Populista*. Buenos Aires: FCE.
- LETAMENDIA ONZAIN, A. (2018): "Movilización, represión y voto: rastreando las claves del referéndum de autodeterminación del 1 de octubre de 2017 en Catalunya". In: *Anuari del conflicte social 2017*.
- SENNETT, R. (2009). "La desglobalización ha empezado, no volveremos al viejo régimen". *El País*, abenduak 22.
- YÚDICE, G. (2002). *El recurso de la cultura. Usos de la cultura en la era global*. Barcelona: Gedisa.
- ŽIŽEK, S. (2009). *En defensa de la intolerancia*. Madrid: Sequitur.

Ion Andoni del Amo Castro



GONZÁLEZ-ALLENDE, Iker; ASCUNCE ARRIETA, José Ángel (Eds.)
El mundo está en todas partes. La creación literaria de Bernardo Atxaga

Barcelona : Anthropos, 2018
 318 p. : il. ; 21 cm
 ISBN: 978-84-17556-02-0

Bernardo Atxagaren sorkuntza literarioa oinarri, hainbat ikerleren artikulua biltzen dituen bilduma argitaratu dute Iker González-Allende eta José Ángel Ascunce Arrieta editore lanetan aritu diren bilduman. Ascunce Deustuko Unibertsitateko katedradun emerituak XVI-XVII eta XX. mendeetako espainiar kulturaren historiaz jardun ohi du eta González-Allende literatura espainiarreko XX. eta XXI. mendeetako katedraduna da Estatu Batuetako Nebraska-Lincoln unibertsitatean. Beraz lanak nazioarteko oihartzuna hartzen du, euskal esparru kulturaletik kanpora begirakoa; batez ere, eremu gaztelaniadun eta anglosaxoniarrera begira. Hortik datorke aurrerago azalduko den ikuspegi literario teorikoen aniztasuna bermatzea kritikari adituen bidez eta Atxagaren lanaren oinarritzko alderdiak tartekatzea artikuluz guztietan, edo are idazleari berari bere lanaren inguruko nondik norakoak galdetuz osatutako elkarrizketak irekitzea liburua. Horrek, lanen jatorriak bilduma testuinguru kulturalean kokatzen laguntzen duela pentsatzera garamatza, artikuluz gehienetan baitira Atxagak eremu literarioan izandako eraginarekiko aipamenak. Aurrerago ikusiko dugu bilduma idazlearen

ibilbide osoari egindako omenaldi gisa aurkezten bada ere, nazioarteko aurkezpen-helburu horrek ere eragina izango duela, artikuluko gehienek, aztertzen dituzten lanen disezioa planteatzen dutelako. Gainera, lanak Atxagaren obren osotasuna iruzkintzea du helburu, eta horren eskizian banatzen ditu kolaborazio guztiak, hartara, irakurle hipotetikoak egilearen obra osoaren ikuspegi globala izateko aukera izango du. Beraz, omenaldi modura planteatutako lanak aurkezpenarako ere berdin-berdin balio dezake; hor bildumaren balioetako bat: hainbat egoera eta esperientziatarako moldagarritasuna.

Bilduman, 14 ikerlari Atxagaren liburu bakoitzari buruz arduratu dira. Horrela, egilearen lan guztien ezaugarrien araberako arduratu dira ikerlariak, nor bere eremuan, lanak aztertzeaz. Egilearen helduentzako prosa lanez arduratu dira José Manuel López de Abadía Bernako Unibertsitateko katedraduna, *Obabakoak* berrikusiz; Annabel Martín Dartmouth Collegeko irakaslea, *Gizona bere bakardadean* landuz; Sally Perret Salisbury Unibertsitateko irakaslea, *Zeru horiek* aztertuz; Mari Jose Olaziregi EHUko irakaslea *Soinujolearen semeaz*; edo Larratiz Ariznabarreta Boiseko Unibertsitateko euskal kulturako irakaslea, *Zazpi etxe Frantzia* eta Jon Kortazar EHUko Euskal Literaturako katedraduna, *Nevadako egunak* aztertuz. Atxagak Haur eta Gazte Literaturaren arloan ondutako ibilbidea ere aztertu dute: Ascunce editoreak *Bi anai* lana landu du eta Sant Louis Unibertsitateko Espainiar Hizkuntza eta Literaturako irakasle den Verónica Azcuek *Behi euskaldun baten memoriak*; *Sara izeneko gizona* aztertu du Ibon Izurieta Denverko Unibertsitateko katedradunak eta *Shola* lana Xabier Etxaniz EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikako irakasleak; *Bambulo* bildumaz arduratu da Jose Manuel López-Gaseni EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikako irakaslea. Jardun poetikoa Lourdes Otaegi EHUko irakasleak eta Juan José Lanz EHUko Espainiar Literaturako irakasleak landu dute; *Etiopia* eta *Poemak eta hibridoak* aztertuz hurrenez hurren. *Lekuak* lan hibridoa Elixabete Ansa Txileko Unibertsitate Katoliko Pontifizioko Filosofia Fakultateko irakasleak aztertu du. Aipagarria da lana irekitzen duen artikulua: editore lanak egin dituen González-Allendek egileari egindako elkarrizketa bat. Ikusten denez, artikuluen egileak ere, euskal esparrutik haraindi, eremu anglosaxoi eta gaztelaniarretik gerturatu dira Atxagaren lanetara, lanari eman dakioken proiektzioaren erakusle. Horrela, hainbat testuingururekiko, errealitate politikorekiko eta eragin literarioerekiko lotura nabarmen zuten da kokapen eta garai zehatzak jorratzen dituzten literatura testu horietan. Bestalde, idazleak berak dituen gainerako egileekiko loturak ere aipatuko dira tesi horren erakusgarri.

Erreseina honetan Atxagaren lanen euskarazko bertsioak aipatu badira ere, liburua gaztelaniaz idatzia egonagatik, ikerlariak gaztelaniazko bertsioak, edo zenbaitetan, euskarazko gaztelaniazko zein beste hizkuntzetako bertsioak, baliatu dituztela zehaztu dute artikuluetan.

Liburu hasierako elkarrizketak gainerako artikuluen eta lan guztiak biltzen dituen izenburuaren arteko lotura osatzen du. Funtsean literaturaz diharduen, baina, hainbat gai ukitzen dituen (feminismoa, memoria, esperientzia pertsonalaren balioa...) elkarrizketa da: jardun literarioa gainerako gaien erdigunean jartzen baitu behin eta berri. Liburuaren irakurleak ondoren datozen artikuluek aztertzen dituzten lanetan aurkituko dituen Atxagaren unibertsio literarioko obsesioak aurreratzen dira artikuluan, ondoko irakurketak leunduz.

Lehen artikuluan, preseski, José Angel Ascunce *Bi anai* liburuaren interpretazio sinbolikoaren aldeko apustua egiten du: literatura popularraren eta klasikoaren arteko nahastea azpimarratuz. Ondoren, José Manuel López de Abiadak *Obabakoak*en ipuin esanguratsu bat aletzen du: azken atalaren eta lehen atalaren arteko lotura egiten duen Villamedianako herriaren inguruko kontaketa; zeina, duen presentzia bereziagatik ere, arretea gehiegi eskaini ez zaion testua baita eta hortik dator artikuluko honen ekarria. *Behi euskaldun baten memoriak* aztertzeaz arduratu den Verónica Azcuek, idazle asteasuarrak nobelan lantzen dituen balio nagusiak azalarazteaz gain, lanaren alderdi animalista, gutxitan aipatua, nabarmendu nahi izan du. Annabel Martín irakasleak, *Gizona bere bakardadean* aztertzearekin batera, euskal giro politikoarekin duen harremana nabarmen zuten du, diskurtso etikoak lan literarioan duen eragina aztertuz. Sally Perretek ere, *Zeru horiek*, edo kritikak deitu izan duen bezala, "Emakumea bere bakardadean", aztertzerakoan bide beretik jotzen du. Biek ala biek, tesi nobelak direla zehaztearekin batera, tesi horren garapenean erraiek duten eragina azpima-

rratzen dute. Mari Jose Olaziregik *Obabakoakeko* unibertsoaren presentzia nabarmentzen du ondoko *Soinujolearen semea* nobelan, eta idazlearen garai literario baten amaieratzat jotzen du horrela. Gainera, aurrekoaren osagarri izan daitekeela iruditzen zaigun interpretazioa egiten du Jon Kortazarrek *Nevadako egunak* aipatzerakoan, egilearen aurreko lanen eragina azaleratzen baitu nobela honetan ere. Ibon Izurietak *Sara izeneko gizonaren* ohiko sailkapena zalantzan jartzeko saiakera egiten du bere testuan, Haur eta Gazte Literaturaren sailean beharrean, helduentzako literaturaren arloan ohikoak diren ezaugarriak dituela nabarmenduz. Beste alde batetik, Xabier Etxanizek eta José Manuel López-Gasenik *Shola* eta *Bambulo* aztertzean, Atxagaren unibertso literarioaren parte direla aldarrikatzen dute. Poesiaren artean, Otaegik *Etiopiaren* eragin literarioak aztertzen ditu eta Juan José Lanzek, *Poemak eta hibridoak* lanak aipatutako beste poesia lanarekin duen harremana nabarmentzen du (poema berreskuratuak, eraginak, etab.). Azkenik, *Lekuak* lana aztertzerakoan, soziologiaren literaturaren bidetik ekiten dio Elixabete Ansak, testuaz bainoago, testuinguruaz arduratuz. Egileek adierazten dute lanaren sarreran artikulugile guztiak askatasunez aukeratu ahal izan dutela beren lanaren analisiaren fokalizazioa, egileen arrasto pertsonala (2018, 18) erraztea baitzen helburua. Irakurketa horien fokalizazioen aniztasunak osatzen du izenburuaren zentzua: mundua leku orotan dagoelako ziurtapena areagotu egiten da, hainbat irakurleen esperientziatarako baliagarriak diren testu gisa aurkezten baitira.

Eman diren adibideetan ikusten da bildumak aniztasuna gordetzen badu ere, ahalegina egin duela artikulua tematikoki sailkatzeko, generoen arteko ordena mantenduz; ulermen lana errazten zaio irakurleari, zeina suposatzen den, ez dela zertan gaian aditua izan, liburu hasteko Atxagari egindako elkarrizketa zabalaz gain, idazle asteasuarraren ibilbidearen nondik norakoan laburtzen dituen sarrera ondu baitute edizioaz arduratu diren bi ikerlariak. Gainera, sarrera testuan adierazten da liburu Atxagaren “omenaldi eta aintzateste modura” prestatua izan dela “egungo euskal eta abangoardia literarioaren gakoa izateagatik” (itzulpenak geureak dira, 2018, 9). Omenaldiak laguntzen du bildumarekin bilatzen den idazlearen idazketa osoaren aletzea.

Alde horretatik, egile batetik bestera azterketa oinarritzeko ikuspuntu teorikoak aldatzen dira. Aise ibiliko da irakurlea artikulua batetik bestera, nahiz eta foku desberdinak erabili, Atxagaren leku komunak aurkituko baititu batzuetan eta besteetan. Ascunceren *Bi anairen* interpretazioan abangoardiaren eragina aipatzeaz gain, literatura klasikoaren eta popular europarraren presentzia ere iragartzen da, euskal idazlearen lana testuingurutzat. Gauza bera gertatzen da *Obabakoak* edo *Behi euskaldun baten memoriak* iruzkintzen dituzten López de Abiada eta Azcueren lanetan: biek ala biek aipatzen dute euskal landa giroa baina, beste giro baserriarrek konparatuz: izan daiteke Gaztela, izan daitezke Europan 60ko hamarkadan zabalduko kontzientzia politikoaren oinarriak. Espainiar Estatuako Trantsizioko giro nahasiarekin lotu dituzte nobela politikoanak Martínek, Perretrek, nahiz *Lekuak* lan hibridoa Ansak. Are Izurietak *Sara izeneko gizona* haur eta gazteentzako lana aztertzean pisu historikoaren eragina balioztatuko du. Bereziki esanguratsua da Europako abangoardiaren eragina lan poetikoak aztertu dituzten artikulugileengan eta azken hamarkadetan sortutako autofikziozko literatura mendebaldarraren eragina nabarmendu du *Nevadako egunak* irakurtzean Kortazarrek. Azkenik, Haur eta Gazte Literaturaren lanak iruzkindu dituztenek (*Shola*, *Bambulo*) *Behi euskaldun baten memoriak*ekoaren bidetik, 60ko hamarkadako babilioen eragina nabarmentzen dute. Horrela, artikulua guztiak egikaritzen dute liburuaren izenburuan aipatzen den Atxagaren lanaren nazioartekotasuna.

Bestalde, idazlearen mundu literarioa usu gerturatu ohi den irakurleak bilatuko ditu bere literaturaren gaineko begirada berriak. Azcuek *Behi euskaldun baten memoriak* iruzkintzerakoan ideologia animalistarekiko gerturatzea aipatzen du, izenburutik beretik “Bernardo Atxagaren narratiba eta pentsamendu animalista” (2018, 89). Gerora artikuluan nabartuko du oso nabarmendua izan ez den ikuspegi hau, liburuan agertzen diren beste ideologia libertarioekiko osagarria izan daitekeela. José Ángel Ascuncenek ere *Bi anai* fabularen eta dramaren artean kokatuz (2018, 49), tolesdura bat gehiago erantsiko die nobelaren ohiko analisisiei.

Marko teorikoan ere ekarri interesgarriak planteatzen ditu lanak bere osotasunean. Batetik, *Obabakoakeko* munduaren oihartzunari buruz planteatzen diren ideiak kontuan hartzen badira. Izan ere, Olaziregiren tesiaren arabera, *Obabakoakeko* aroaren amaiera iragaritzen duen obra da *Nevadako egunak*, baina Jon Kortazarrek aipatzen du idazlearen azken aldi honetan argitaratua izan zen *Nevadako egunak* (2013) lanean badirela aurreko lanen zantzuak oraindik. Eztabaidarako eman lezake zenbaterainoko presentzia ageri den azken lan horretan. Bestetik, Haur eta Gazte Literaturaren barne-tentsioaren adibide izan daitezke Ibon Izurietak *Sara izeneko gizonaren* inguruan planteatutako galdera eta Xabier Etxanizek *Sholaren* inguruan emandako arrazoibidea. Etxanizek berariaz azpimarratzen du *Shola* Atxagaren unibertso literarioaren parte dela eta argudiatzen du zenbaitetan Haur eta Gazte Literaturari ezikusia egin ohi zaiola zentzu horretan. Baieztapen hori onartuz gero, Ibon Izurietaen proposamena esanguratsua da; artikulua planteatzen baitu *Sara izeneko gizonaren* konplexutasuna helduentzako literaturaren barnean kokatzeko arrazoieta bat izan daitekeela. Bai baitirudi bigarren honen interpretazioan Etxanizek aldarrikatutako Haur eta Gazte Literaturaren prestigio falta tartekatzen dela.

Orokorrean, Atxagaren lanen intereseko denaren baliagarri izango da bilduma; artikulugileek asmatzen baitute hainbat ertzetatik heltzen gaiari. Ideia orokorrak plazaratzen dira, baina, proposamen berritzaileek ere badute tokia bildumako hainbat testutan. Aurreko paragrafoetan aurreratu den bezala, lanak berdin balio diezaioke Atxagaren lanaren hurbilpen kritikora lehenengoz gerturatzen den irakurleari nahiz gaiari aditua izan daitekeenari.

Interesgarria da bestalde, sarrera gisa eskainitako elkarrizketako gaiak guztiz bat datozela artikuluetan zehar errepikatzen diren Atxagaren obsesio modukoekin. Artikuluen segidari jaramon eginez gero, irakurleak ondorioztatu ahal izango ditu idazlearen betiko ardurak zeintzuk izan diren (eta oraindik ere badiren): gizarlean terrorea eragiteko gaitasunaren jatorriak, baztertuaren poetika bat sortzea, norberaren esperientziak indibiduo baldintzatzeko duen aukera, memoriaren eragina norbanakoaren psikean edo hizkuntza txikitu baten literatura sortzearen ziurgabetasunak. Horrela betetzen da sarreran helburu gisa markatzen den zutaria: egilearen mundu literarioaren inguruko ikuspegi zabal eta osoa lortzea (2018, 20).

Aiora Sampedro